

Aste Santuko irteera Gaztelekuarekin (2010ekoentzat)

Kaixo, guraso:

Aste Santuko oporretarako egun-pasa bat antolatu du Mutrikuko Gaztelekuak. Hona hemen informazio orokorra, gutxi gorabeherako ordutegiekin:

Ekintzaren informazio orokorra

- Apirilak 7, ostirala
 - 10:00 → Zabel Plazan elkartu. Ondoren, oinez Debara. Hamaiketako jan eta trenera.
 - 12:30 → Errekalde-Donostia tren-geltokian jaitsiko gara. Inguruko parkean, jolasak eta bazkaria. Ondoren, Urbil merkataritza-gunera oinez.
 - 15:00 → Costa Jump ohe-elastiko eta tranpolin-parkean sartu.
 - 16:00 → Oinez, Errekalde-Donostia tren-geltokira. Gero, Deban autobus publikoa Mutrikurantz.
 - 18:00 → Ekintzaren amaiera Mutrikun.

(*) Eguraldi txarra eginez gero, plangintzan aldaketak egon daitezke. Kasu horretan, abisatuko zaizue.

Eraman beharrekoak:

- Hamaiketako, bazkaria eta ura.
- MUGI txartela kargatuta (hobe da hau); edo autobus eta trenerako dirua.
- Arropa eroso.



Ekintzan parte hartzeko bete beharreko baimenak:

Parte hartzeko baimena

Nik, -k, NAN zenbakidunak, nire erantzukizunpena adierazten dut, nire seme/alaba den
..... -k parte har dezan Mutrikuko Lapatzoko Gaztelekuak 2022-2023 ikasturtean antolatu duen Aste Santuko irteeran parte hartzeko, apirilaren 7an burutuko dena.

Konpromiso-baimena

Ohar hau sinatzearekin batera, onartzen dut zehatz-mehatz irakurri dudala erakunde antolatzaileak emandako informazio guztia, eta parte-hartzeko baldintzak onartzen ditut. Nire seme/alabak badaki uneoro kasu egingo diela monitoreen jarraibideei eta aholkuei. Nire seme/alabak uneren batean arauak betetzen ez baditu edo portaera desegokia badu, berak egindako kalte-galeren erantzule egingo naiz, eta monitoreek adierazitako orduan eta lekuan bere bila etortzeko erantzukizuna hartzen dut.

Argazkietan azaltzeko baimena

Lapatzoko Gaztelekuko irteeran ateratzen diren irudietan nire seme/alaba agertzen bada, baimena ematen dut argazki horiek elkarteak eginiko publikazioetan erabiltzeko edo herri mailan egin daitezkeen erakusketetan jartzeko (Otsailak 18ko 3/2005 Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen arabera).

Borobildu: BAI / EZ

Sinadura:

Gurasoaren / tutorearen telefono-zenbakia(k):

.....

Zerbait adierazteko (alergiak, gaixotasunak, beldurrak...):

.....

Izena emateko epea: martxoaren 24, 25, 26 Gaztelekuan; 27 eta 28 Ludotekan.

Ordaindu beharrekoa: 15€. Baimen-orri hau beteta ekartzean, dirua eskuz eman Gaztelekuan.



Mutrikuko Udala



LAPAZORRI aisialdi elkarte